

HIZNET HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA 2006-2007

BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA ETA LANHITZ

EGILEA: AIORA BERISTAIN MADARIAGA

AURKIBIDEA

	orrialdea
0. Sarrera	4
1. Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluaren Sorrera eta Estrategia	6
2. Bai Euskarari Akordioa	8
2.1. Akordioaren Ondorioak	10
3. Bai Euskarari Ziurtagiria	12
3.1. Bai Euskarari Ziurtagiriaren helburuak	12
3.2. Bai Euskarari Ziurtagiriaren mailak	12
3.3. Bai Euskarari Ziurtagiria: irizpideak	13
3.3.1. “Zerbitzua eta Lana Euskaraz” lortzeko irizpideak	13
3.3.2. “Zerbitzua Euskaraz” lortzeko irizpideak	15
3.3.3. “Bidean” lortzeko irizpideak	16
3.4. Ziurtagiria lortzeko eta mantentzeko prozesua	16
3.5. Ziurtagiriaren Elkartea	18
4. Lanhitz	22
4.1. Lanhitz: gako ideiak	23
4.2. Lanhitz: prozesua	24
4.3. Lanhitz: azterketa eta diagnosia	27
4.3.1. Eragin-gunea mugatzea	27
4.3.2. Egiera soziolinguistikoaren azterketa	28
4.3.3. Euskara planari dagozkion legezko betekizunak	29
4.3.4. Ardatz eta mailen lehenespena lantzeko helburuen aukeraketa	29
4.4. Euskara plana	30
4.5. Euskara planaren ebaluazioa	31
4.6. Euskara planaren berrikuspena	32
4.7. Euskara Kalitatearen Ziurtagiria	33

5. Erreferentziazko Marko Estandarra eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren neurgailuak	35
5.1. Erreferentziako Marko Estandarra oinarri hartuta	36
5.2. Bai Euskarari oinarri hartuta	46
5.3. EMEn daudenak eta Bai Euskararin ez daudenak	55
5.4. Bai Euskarari daudenak eta EMEn ez daudenak	56
5.5. Bai Euskarari Ziurtagiria “Zerbitzua Euskaraz” EMEn	59
6. Bukatzeko	71
7. Bibliografia	74

0. SARRERA

Lan-munduan euskararen erabilera sustatzeko urratsak aspaldikoak dira. 1991n diseinatu zen Antzuolako Elay Taldearen euskara plana, euskara era planifikatuan txertatzen aitzindari izan zena. Eusko Jaurlaritzak ere, Elayk zabaldutako bide honetatik ekin zion 90eko hamarkadan lan-munduan euskararen erabilera sustatzeari. Orduan enpresa handiei eta aldeko baldintzak zituztenei zuzendutako programa pilotua zena, gaur gainontzeko enpresetara zabal daitekeen egitasmo finkoa da. Ez bakarrik Eusko Jaurlaritzaren lanari esker, baita hizkuntza aholkularitzan aritu direnen eta orain hamar urte lanean hasi zen Kontseiluaren lanari esker ere. Azken honek, lan honetan zehar ikusiko den bezala, *Bai Euskarari Ziurtagiria* sortu zuen, arlo sozio-ekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko asmoz.

Ildo beretik, 2006ko irailaren lehenengo egunetan, enpresa munduan euskara erabiltzen laguntzeko akordioa sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak eta enpresaburuen elkarteek. Horrekin batera, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Eudel EAEko udalen elkarteak adostutakoa gauzatzeko egitasmoa aurkeztu zuten: *LanHitz* programa, lana eta hitza uztartuz, lantokietan euskararen presentzia eta erabilera indartzeko eta bultzatzeko ekimena.

Lan honetan, goian aipatutako bi ekimenak azalduko dira, *Bai Euskarari Ziurtagiria* eta *Lanhitz* programa. Ikusiko dugunez *Bai Euskarari Ziurtagiria* martxan urteak daramatzen proiektua da, dagoeneko gizartean txertatua eta izen propioa duena. *LanHitz* Eusko Jaurlaritzak abian jarri duen programa da; horren barruan, ziurtagiri edo zigilu bat sortzea aurreikusten da. Beraz, bi ekimenok konparagarriak ez diren arren, badute antzekotasunik eta antzekotasun horien bateragarritasunaz arituko gara, hau da, bi ekimenok azaldu ostean, *Bai Euskarari Ziurtagiriaren* eta Eusko Jaurlaritzak sortu nahi duen Euskararen Kalitatearen Zigiluaren neurgailuen artean egingo dugu konparaketa.

Dudarik gabe, garai erabakigarriak dira euskararen normalizaziorako eta sortutako ekimen guztiak bateragarriak eta osagarriak izatea beharrezkoa da lan honetan ikusiko dugun moduan. Izan ere, zenbat eta leku gehiago egin euskarari, zenbat eta hobeto eman arnasa hizkuntzen arteko elkarbizitzari, orduan eta berrikuntza, modernitate eta dinamismo handiagoa izango du lan-munduak. Honek, Hizkuntza

Politikarako Sailburuordetzaren politika eta euskaingintzaren arteko elkarlana, auzolana eta lankidetzaz eskatzen du. Beharrezkoa izateaz gain, posible ere egin behar da.

1. EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUAREN SORRERA ETA ESTRATEGIA

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua euskalgintzaren jardunetik sortu zen 1997an. Gaur egun, Kontseiluan 45¹ elkarte ordezkaturata badaude ere, horietako batzuk elkarrean elkarrekin edo federazioak dira. Guztira ehunka entitate daude ordezkaturata, 240.000 bazkide eta 6.000 bat langile.

1997 hartan egin zen diagnostikoak kezka bizia erakusten zuen: euskararen normalizazio prozesua nahi baino askoz polikiago ari zen garatzen, instituzioen eta alderdien aldetik ez zen behar adinako inplikaziorik ikusten, eta euskalgintza bera ere sakabanaturata zegoen, estrategia bateratu eta eraginkorrik gabe.

Egoera horri buelta emateko asmoz bildu ziren euskararen erakundeak Kontseilura. Euskalgintzaren bilguneak hiru lan ildo finkatu zituen hasieratik:

- Gogoeta, euskalgintzak behar duen hausnarketa, kohesionatze eta diskurtso berritze premiari erantzuteko.
- Plangintza Orokorra, gizarte arlo ezberdinetan dagoen normalizazioari taxuz erantzuteko.
- Presio edo eragin soziala, euskaldunok gizartean izan behar dugun tokia eskuratzeko.

Kontseiluaren asmoa izan da gizartean eragiteko prozesu bat abian jartzea eta zeharka esparru politiko-instituzionalean. Estatutuetan bertan, bere helburua honela definitzen du:

Kontseiluaren eginkizun edo misioa da gizarte eragileak, eragile politikoak eta euskalgintzako eragileak nork bere esku dituen neurri normalizatzaileak hartzera eragitea, euskararen berreskurapen prozesuan aldaketa kualitatiboa lortzeko.

¹ <http://www.kontseilua.org/antolaketa.cfm?hizkuntza=0&atala=bazkideak>

Plan Estrategikoa, antolatzeko erabil zitezkeen bideen artetik egokienetakoa zelako hautatu zen. Estrategiari dagokionez, Kontseiluak eragile sozial garrantzitsu batzuk ekintza ildo jakin batean inplikatzen jotzea erabaki zuen, gero dinamika horren bitartez eta pixkanaka gainerako eragile politiko eta sozialen baitan euskararen egoera normalduz joateko. Inplikazio bide horren helburua bikoitza da:

- Gizarte eragileek hizkuntza neurri zehatzak abian jartzea.
- Gizarte indarren inplikazioak bultzaturik, instituzioek hizkuntza politika eraginkorragoak garatzea.

2. BAI EUSKARARI AKORDIOA

Prozesuaren abiapuntuko hipotesia honakoa izan zen: gizartean dagoen euskaltzaletasuna askoz ere handiagoa da neurri normalizatzailerik zehatzetan gauzatzen ari dena baino. Hortik Kontseiluko kideek ondorioztatu zuten gizarteari euskaltzaletasuna bideratzeko aukera egokiak eskaini behar zitzaizkiola: erakargarriak, garrantzi sozial handikoak, inplikatzeko bidea eskaintzen dutenak eta erakunde bakoitzaren errealitatera egokitzeko modukoak. Horri erantzutera zetorren *Bai Euskarari Akordioaren* prozesua.

Bai Euskarari Akordioaren bitartez, bertara bildutako gizarte eragileek euskarak garapen osoa izan dezan abiatutako prozesuan parte hartzeko hitza eman zuten. Era berean, prozesu hori hizkuntza normalizaziorako Plan Estrategiko bat prestatuz eta ezarri burutzeko konpromisoa hartu zuten.

Bai Euskarari Akordioaren sarreran, UNESCOk hizkuntzen desagertzearen arriskuei buruz egindako ohartarazpenaren ondoren, hitzartu ziren puntuak ageri dira:

Behean sinatzen dugun gizarte-eragileok:

1. *Euskarak garapen osoa lor dezan bere normalizazioa behin betiko bideratuko duen prozesu batean esku hartzeko konpromisoa adierazten dugu.*

2. *Prozesu hori hizkuntza normalizaziorako Plan Estrategiko bat prestatuz eta ezarri burutuko dugu. Horren bitartez hizkuntzaren egoera sektorez sektore eta lurraldez lurralde aztertuko dugu, maila bakoitzean beharrezko neurri normalizatzailerik finkatuko ditugu, eta horien arabera, plana diseinatzen esku hartuko dugun gizarte-eragileok konpromiso zehatz eta borondatezkoak hartu eta praktikan ezarriko ditugu.*

3. *Akordio eta konpromiso dinamika honetan gizarteak bere hizkuntza berreskuratzeko duen borondate garbia islatu nahi da. Erabaki hori gizartearen adierazgarri diren gizarte eragileen esku-hartze zabalaren*

bitartez bideratu ahal izateko guztiei zabalik daude Bai Euskarari Akordioa eta ondoren burutuko den konpromiso prozesua.

1998ko abenduko sinatze ekitaldian 22 gizarte eragilek egin zuten bat Akordioarekin. Geroago, gizarte osoari zabaldu zitzaion Bai Euskarari Akordioa izenpetzeko aukera, eta guztira 899 eragilek eman zuten konpromisoetan lotzeko hitza (687k Hegoaldean eta 212k Iparraldean).

Akordioaren sinatzaileek, sektorekako taldeetan antolatuta, gogoeta prozesu bati ekin zioten, Plan Estrategikoa diseinatzera iristeko. Horrela sektore bakoitzaren diagnostikoa, helburuak, ildo estrategikoak eta normalizaziorako ekintzak zehaztu ziren LKS enpresaren laguntzarekin. Lantaldeek batez beste 29 konpromiso proposamen finkatu zituzten alor bakoitzeko. Konpromisoak askotarikoak dira: enpresako errotulazioa euskaratzea, publizitatearen ehuneko jakin bat euskaraz egitea, euskararen ezagutza kontuan hartzea langileak kontratatzerakoan, barne harremanak euskaraz izatea, eta abar. Behin lantaldeek konpromisoak finkatuta eta minimotzat jotzen zituztenen zerrendak erabakita, epe bat eman zitzaien erakunde guztiei proposamen horietatik konpromiso modura zeintzuk hartuko zituzten erabakitzeko.

Bien bitartean, 1999ko martxoan, Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzak hitzarmena sinatu zuten *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren* (EBPN) eta *Bai Euskarari Akordioaren Plan Estrategikoaren* (BEAPE) osagarritasuna eta alde bien arteko lankidetzaren bermatzearen. Hitzarmen horren bitartez, Kontseiluak EBPNren garapena bultzatzeko konpromisoa hartu zuen bigarren puntuan ondoko atal hau gehituz:

Konpromisoak hartze hau gizarte eragile bakoitzaren autonomia errespetatuz bideratuko da.

Plan Estrategiko honen oinarria Eusko Jaurlaritzak onartu berri duen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia izango da, Euskal Autonomia Erkidegoan. Era berean, Nafarroako Gobernuak euskara sustatzeko eratutako egitasmoekin eta Ipar Euskal Herrian, lehenbailehen, gauzatu behar den hizkuntza antolakuntzarako plangintzarekin koherentzian eta osagarritasunez bideratzeko konpromisoa adierazten dugu.

Ondoren, erakundeek denbora izan zuten hartu beharreko konpromisoak aztertu, horien kostu ekonomikoaren kalkulak egin, arazo organizatiboak aurreikusi eta erabakia hartzeko. Hegoaldean 2000ko urtarriletik maiatzera eta Iparraldean 2001eko martxotik ekainera egin zen hori guztia. Hilabete horietan, Kontseiluak eragite plan bat garatu zuen, gizarte eragileak urratsak egitera bultzatzeko asmoz. Lan horren emaitzak 2000ko ekainean jaso ziren Hegoaldean, eta urtebete geroago Iparraldean: guztira 520 gizarte eragilek hartu zituzten konpromiso minimoak: 435ek Hego Euskal Herrian eta 85ek Iparraldean. Oso entitate gutxi izan ziren konpromisoak hartu bai baina minimoetara iritsi ez zirenak.

2.1. AKORDIOAREN ONDORIOAK

Bai Euskarari prozesuaren arrakastaren arrazoi nagusiak hauek izan daitezke:

- Euskalgintzako militanteen inplikazioa: entitate askotako arduradunena eta herriz herriko kideena.
- Hasierako gizarte eragileen erreferentzialtasunak efektu berezia sortu zuen gainerakoengan: “horiek baldin badaude ni ez naiz kanpoan geldituko”. Atxikimenduen kateatzea arreta handiz zaindu zen: hasierako hiru erreferentzialenak (Athletic Club, MCC eta ELA) beste hemeretziren adostasuna ekarri zuen (gonbita jaso zutenen % 80); 22 eragileko talde hura erabakigarria izan zen ehunka gehiago erakartzeko.
- Prozesua parte hartzailea izatea.
- Borondatezko prozesua.
- Prozesua zorrozki antolatu izana eta bitarteko ekonomiko nahikoekin.
- Babes sozial eta mediatikoa, eta politizaziorik eza. Gizartearen eta komunikabideen babesa erabakigarria izan zen.
- Prozesu osoan zehar antolatu den eragin sozialeko egitasmo iraunkorra, entitateak behartu gabe, baina horiek pausoak ematera bultzatzeko.

Proiektuaren alderdi zailak ere azpimarratzekoak dira:

- Dimentsioa. Dedikazio handia eskatu zion proiektu honek Kontseiluari. Hasieran Kontseiluaren asmoa dimentsio txikiagoko proiektua antolatzea izan zen, baina gizarte eragileen erantzun zabalak dimentsio askoz ere handiagoa ematera bultzatu zuten Kontseilua, aukera galtzen ez uztearren.
- Hasieran EAEko administrazioarekiko harremanak oso egokiak izan baziren ere, prozesu honen arrakastak egoera zaildu egin du Kontseiluak bide autonomoa eramatearen ondorioz. Aldiz, alde positiboan azpimarra daiteke errezelo eta protagonismo arazo horiek ekarri dutela, Kontseiluaren ustez, Eusko Jaurlaritzaren egitasmoen hedatze handiagoa hasieran aurreikusi zutena baino, EBPN herrietaratzea eta sortu berri duten *LanHitz* proiektua esate baterako

3. BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA

Euskara gaur egun faktore sozial garrantzitsua da, entitateen kudeaketa ausart eta berritzailearen giltza, abantaila lehiakorra, barne eta kanpo asetzerako faktore, hala nola kohesio eta irekitze gaitasunaren erakusgarri.

Bai Euskarari Ziurtagiria ziurtatze sistema diseinatzea Kontseiluaren esku utzi zuten sektore desberdinetako gizarte eragileek eskatutako tresna da, Ziurtagiriaren bidez euren buruaren aurrean eta gizartearen aurrean hizkuntza normalizazioarekiko duten ardura erakusteko.

Ondoren azalduko dugun ziurtatze sistema diseinatzerakoan baina, ezin da ahaztu Kontseiluak entitate ugariaren laguntza izan zuela: EMUN, Elhuyar, Artez eta Ahize hizkuntza aholkularitzena batez ere; ahaztu gabe, Euskalit, Aenor, LKS eta Zubietako Lanbide Eskolak eskainitakoa.

3.1. BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIAREN HELBURUAK

Ziurtagiriak hizkuntza normalizazio prozesua bermatzen du, honako helburu hauekin:

- Egindako lana gizartearen aurrean ziurtatzeko aukera eskaintzea.
- Zerbitzua euskaraz jasotzeko dagoen eskaerari erantzutea.
- Entitateen barruan normalizazio prozesu bat ahalbidetzea.

3.2 BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIAREN MAILAK

2001eko abendura arte bi maila bazituen ere, gaur egun hiru maila ditu Ziurtagiriak:

- **ZERBITZUA ETA LANA EUSKARAZ:** zerbitzua euskaraz eskaini eta lan hizkuntzatzat euskara duten enpresei, saltokiei eta era guztietako entitateei zuzendua.

- **ZERBITZUA EUSKARAZ:** zehaztuta dauden irizpideen arabera zerbitzua euskaraz eskaintzen duten enpresei, saltokiei eta era guztietako entitateei zuzendua.
- **BIDEAN:** euskararen normalizaziorako neurriak hartzen eta garatzen ari diren enpresei, saltokiei eta era guztietako entitateei zuzendua.

3.3. BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA: IRIZPIDEAK

Bai Euskarari Ziurtagiria “Zerbitzua Euskaraz” eta “Zerbitzua eta Lana Euskaraz” lortzeko baldintzak bost ataletan jasotzen dira (beherago ikusiko dugun diagnostikoa egiteko eta helburuak zehazteko fitxa bezala) eta atal horietan maila bakoitza lortzeko irizpide zehatzak bete behar dira:

1. Erakundeko kideen hizkuntza gaitasuna
2. Irudi korporatiboa eta hizkuntza paisaia
3. Kanpo harremanak
4. Barne harremanak
5. Programa informatikoak

Elhuyar, Emun, Artez eta Ahize hizkuntza aholkularitzekin adostu ziren irizpideak.

3.3.1. “ZERBITZUA ETA LANA EUSKARAZ” LORTZEKO IRIZPIDEAK

Maila hau lortzeko, langile guztiek beren lanposturako behar duten ahozko eta idatzizko hizkuntza gaitasuna izan behar dute.

Irudi korporatiboari eta hizkuntza paisaiari dagokienez:

- Irudi korporatiboa, errotulu nagusia eta hizkuntza paisaiaren elementu guztiak euskaraz edo bi hizkuntzatan egon behar dira.
- Bi hizkuntza edo gehiago erabiltzen direnean, euskarari lehenetsuneko tratamendu formala eman behar zaio.

Baldintza hauetaz gain, idatziz eskatuko zaie hornitzaileei elementu guztiak euskaraz bidaltzeko; halaber, euskaraz edo bi hizkuntzatan dauden elementuak baino ez dituela erabiliko jakinaraziko da, Ziurtagiriaren helburua, berau lortzen duen entitatea euskalduntzeaz gain, eragitea ere badelako, euskalduntzean urrats berriak ematea.

Kanpo harremanen atalean:

- Elementu guztiak euskara hutsez edo bi hizkuntzatan egon beharko dira (marka edo izen propio bat izan ezean).
- Euskararen presentziak eta tratamendu formalak (letra tamaina, lodiera, kokapena...) beste hizkuntza batek izan dezakeenaren adinakoa izan behar du bezeroarekiko harremanetan erabiltzen den agiri edo elementu bakoitzean.

Barne harremani dagokionez:

- Barne harremanetan erabiltzen diren elementu guztiek euskaraz egon behar dute.
- Funtzionamenduan eragiten duen hornitzaileek edota azpikontrataturako ohiko zerbitzuek (aholkularitza, gestoria, abokatu, garbiketa, garraio enpresa, telemarketing zerbitzua...) euskaraz aritzeko gaitasuna izan behar dute.
- EAEn kokaturiko administrazioekiko ahozko eta idatzizko harremanak euskara hutsez izan beharko dira.

Programa informatikoen atalean, aplikazio informatikoak euskarazko bertsioak izan beharko dira (euskarazko bertsioa desfasaturik gelditzen denean salbuespena egingo da): merkatuan dauden programa edo sistema eragile estandarrek; programetan erabiltzen diren testuak (kontabilitateko mezuak, fitxategi edo direktorioen izenak...); hizkuntza aldatzeko aukera ematen duten programak (fakturazioa...), etab.

3.3.2. “ZERBITZUA EUSKARAZ” LORTZEKO IRIZPIDEAK

“Zerbitzua Euskaraz” lortzeko, bezeroekin ahozko eta idatzizko harremanak dituzten langileek bere lanposturako behar duten hizkuntza gaitasuna izan beharko dute:

- 1 eta 10 langile bitarteko erakundeetan: langileen % 80k.
- 11 eta 50 langile bitartekoetan: langileen % 75ek.
- 51 langiletik gorako erakundeetan: langileen % 66k.

Irudi korporatiboan eta hizkuntza paisaian:

- Irudi korporatiboa, errotulu nagusia eta hizkuntza paisaiaren elementu guztiak euskaraz edo bi hizkuntzatan egon behar dira.
- Bi hizkuntza edo gehiago erabiltzen direnean, euskarari lehentasunezko tratamendu formala eman behar zaio.
- Idatziz jakinaraziko zaie hornitzaileei aurrerantzean euskaraz edo bi hizkuntzatan dauden elementuak baino ez dituela erabiliko. Horrez gain, hornitzaileek emandako elementuak euskaraz ez daudenean erakundeak berak elementu hori ordezkatu eta euskaraz edo bi hizkuntzatan ipintzeko aukerak jarriko ditu.

Kanpo harremanen arloan “Zerbitzua eta Lana euskaraz” lortzeko beharrezkoak diren irizpide berdinak hartzen dira kontuan.

Barne harremanei dagokienez, ondorengo elementuek behintzat euskaraz egon behar dute: barne araudia, barne ohar sinpleak, barne agindu sinpleak, zirkularrak, bileretarako gai zerrendak, nominak, urteko kudeaketa plana edo egitasmoen txostenak eta estatutuak. Hauek euskaraz egon ezean, langileari ez zaio eta zerbitzua euskaraz eskaintzen.

Programa informatikoen atalean kontuan izan beharko da bezeroarekiko erabiltzen diren aplikazio informatikoei, harremanak euskaraz izatea bermatu behar dutela.

3.3.3. “BIDEAN” LORTZEKO IRIZPIDEAK

“Zerbitzua Euskaraz” lortzeko zehazten diren baldintzak betetzera iritsi ezean, “Bidean” maila dagokio entitateari, beti ere, normalizaziorako planifikazioa egiten badu eta hurrengo urteetarako helburuak hartzen baldin baditu.

3.4. ZIURTAGIRA LORTZEKO ETA MANTENTZEKO PROZESUA

Gaur egungo prozedurara iristeko, zazpi urteko ibilbide luzea egin behar izan da. *Bai Euskarari Ziurtagiria* duten enpresek, saltokiek eta era guztietako entitateek, edota eskuratu nahi duten guztiek, euren hizkuntza egoera aztertu eta, hortik abiatuta, urtean zehar garatu nahi dituzten helburuak finkatu behar dituzte. Une honetan, urteko planifikazio hori egin ahal izateko, Ziurtagiriaren Elkartek² “Hizkuntza egoera aztertzeko eta planifikatzeko fitxa” eskaintzen die entitateei.

Tresna honen bidez, edozein plangintzetarako beharrezkoa den diagnostikoa egiten da eta ondoren, urteko helburuak adierazteaz gain, horiek gauzatu ahal izateko ekintzak, epeak, baliabideak eta arduradunak ere zehaztu ahal izaten dituzte. Beti ere, abiapuntuko egoeraren diagnostikotik hasita eta lorgarritasuna, kostu ekonomikoa eta erabaki bakoitzak izan dezakeen eragitea kontuan izanda. Tresna hau, laster euskarri informatikoan ere izango dute eskuragarri Ziurtagiridunek.

Diagnostikoa eta planifikazioa osatzen laguntzeko, teknikari bat bertaratzen da Ziurtagiria nahi duen entitatera eta bertako ordezkariarekin (ardura nagusia eramango duenarekin) betetzen da. Diagnostika egin ostean, planifikazioa adosten da entitatearen eta teknikariaren artean. Euskara Batzordearekin edo honen ordezkariarekin batekin biltzea ere beharrezkoa izaten da (aurrerago azalduko den moduan, baita Euskara Batzordea ez dagoenean sortzea ere), baita entitateko zuzendaritzakide edo beharrezkoa denarekin, batez ere, helburuak aurrera ateratzeko komenigarria eta beharrezkoa delako helburu adostuak izatea; euskararen normalizazioa entitate guztian emango bada eta mehatxu

² Lan honen 3.5. puntuan azaltzen da Ziurtagiriaren Elkartearen sorrera. Elkarte honek du gaur egun *Bai Euskarari Ziurtagiria* kudeatzearen ardura

edo gainkarga itxura hartzea nahi ez bada, komeni da planarekiko langileen zein zuzendaritzaren adostasuna, hala nola, sindikatuena.

Egokiena, Euskara Batzordea osatzea izan ohi da, euskara plana kudeatzeko eta jarraipena egiteko lan-taldea, erakundeko eta planeko ordezkariak biltzen dituena koordinatzailea barne. Beronek izango du planaren helburuak, aurrerapausuak, egin beharrekoak eta abar entitatean zabaltzeko ardura ere. Indar metaketa lortzeko estrategiak sortzeko eta plana entitate osoarena dela erakusteko ardura.

Honekin, enpresako arlo desberdinek adostutako helburuak jartzea lortzen da. Hauek betetzeko adostasunak dakartzan erraztasunekin.

Orain arte, “Hizkuntza egoera aztertzeko eta planifikatzeko fitxa”z aritu bagara ere, Ziurtagiriaren helburua ez da fitxa hori betetzea (nahiz eta askotan lagungarri den, bereziki maila aldaketa jaso nahi denean irizpideak egoki betetzen direla argi agertzeko), edozelako planak aztertu (Ullibarri, Euskaraz Bizi edo entitate bati baino gehiagori eragiten dietenak zein aholkularitzek beren beregi entitate zehatzentzako sortuak) eta entitate bakoitzari dagokion Ziurtagiri maila zehaztea baino. Ziurtagiriaren helburuak, jasotzen duen entitateak euskararen normalizazioan egiten duen lana adieraztea eta saritzea dira. Baina ez da erakuste eta saritze soilean gelditzen. Ziurtagiria lortzen duen entitateak, gizarteari lortu duena erakustez gain eskatu ere egin behar dio. “Zerbitzua eta Lana Euskaraz” daukan entitate batek esaterako, bere hornitzaileei euren arteko harremanetan dena euskaraz izatea eskatu behar die. Beraz, gizartean, Ziurtagiri bakoitzaren inguruan eragitea ere bada Ziurtagiriaren helburua.

Bai Euskarari Ziurtagiria urtebeterako ematen da eta Ziurtagiriaren Elkarreak jarraipen, promozio eta ebaluazio lanak egiten ditu. Urtean zehar, sustapenerako hainbat ekimen burutzen du: publizitate kanpainak, argitalpen espezializatuetan artikuluak, Ziurtagiriaren banaketa ekitaldiak eta abar.

Ziurtagiria beste urtebetez berriztatzeko, entitateek konpromisoen betetze maila gutxieneko bat gainditu behar dute, eta gainera, hurrengo urterako helburu berriak hartu behar dituzte.

Hartutako neurriak bete daitezten laguntzeko asmoz, Ziurtagiriaren Elkarreak lagungarri diren baliabideei buruzko informazioa jartzen du eskura bere teknikarien bidez zein baieuskarari.org webgunearen bidez: dirulaguntza deialdiak, euskaraz aritzen diren profesionalen gida, hizkuntza normalizazioan laguntzen duten aholkularitzak, euskarazko dokumentu eta inprimakiak, etab.

Urtez urte hazten ari den proiektua da Ziurtagiriarena. 2007ko irailean 1495 enpresa, saltoki eta entitatek dute *Bai Euskarari Ziurtagiria*.

Sektore, tamaina eta lurralde guztietako entitateak dira *Bai Euskarari Ziurtagiria* eskuratu dutenak: Bankoa, Batz, Elkargi, Euskadiko Kutxa, Gipuzkoa Donostia Kutxa, Eroski, Athletic Club Bilbao, Real Sociedad de Futbol, Saski Baskonia, Diocesanas, Hotel Restaurante Argiñano, Elay Taldea, Arlan S.A., VUSA, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa, Hobetuz, SPRI, Kalitatea Fundazioa, Visesa, etab.

2006an Ziurtagiria berri zuten entitateen portzentaia % 93koa izan zen.

3.5. ZIURTAGIRIAREN ELKARTEA

Lan-mundua euskalduntzea guztiz estrategikoa da euskararen normalizazioan. Horregatik, Kontseiluak hasieratik eman dio izaera estrategikoa *Bai Euskarari Ziurtagiriari*. Gainera azken urteotan izan duen hazkundera ikusita eta etorkizunean garapen egokiagoa izateko, beharrezkotzat jo da erakunde gehiago inplikatzeko proiektuan. Horregatik eta horretarako sortu da Ziurtagiriaren Elkarrea. Beraz, 2007ko ekainetik aurrera, Ziurtagiriaren Elkarrea da *Bai Euskarari Ziurtagiriaren* kudeatzailea.

Aurreko zazpi urteetan *Bai Euskarari Ziurtagiriaren* bidez metatutako esperientzia handia izan da, prozesu dinamikoa, parte hartzailea eta planifikatua eraman da aurrera, etengabeko hobekuntzan oinarrituta, ekarpenen bitartez osatu eta aberastu dena. Lortutako esperientziatik, Kontseiluak ondorioztatu du, arestian esan bezala, lan-munduaren euskalduntzeak behar duen bultzada izateko gizarte eragile guztien parte hartzea behar dela. Beraz, elkarlana da Ziurtagiriaren Elkarrearen oinarria, ezinbestekoa den gizarte eragile guztien inplikazio aktiboarekin.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Sustapenerako Elkarte -Ziurtagiriaren Elkarte- irabazi asmorik gabeko elkarte da. Helburua, enpresa, saltoki eta era guztietako entitateek euskararen normalizaziorako konpromisoak hartzea eta betetzea da. Horretarako, honako egiteko nagusiak ditu bere gain:

- Bai Euskarari Ziurtagiriaren kudeaketa egokia bideratzea.
- Bai Euskarari Ziurtagiriaren edukiak lantzea eta gizarteratzea.
- Ziurtagiria eskuratuko duen entitate kopurua handitzea.
- Ziurtagiria duten entitateen segimendua eta eragintza egitea.
- Era guztietako entiteek dagozkien neurri normalizatzaileak hartu eta betetzera eragitea.
- Elkarte osatuko duten kideen arteko komunikazioa bermatzea.
- Helburua lortzeko erabaki eta zehaztu litekeen beste edozein egiteko edo funtzio.

Elkarte honen barne funtzionamendua euskara hutsezkoa da. Egoitza nagusia Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean du eta bere ekintzak Euskal Herriko lurralde eremuan gauzatzen ditu.

Elkartearen kudeaketa bazkideen Batzar Nagusiaren eta Zuzendaritzaren esku dago; Batzar Nagusia bazkide guztiek osatutako organo gorena da. Bertan adieraziko dituzte beraien nahiak eta asmoak.

Hiru bazkide mota daude:

- Bazkide babesleak: Kontseilua osatzen duten kide guztiak botoen % 50arekin.
- Bazkide erabiltzaileak: Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu eta erabiltzen duten entitateak edota lortuko dutenak; horrela, proiektuaren garapenean ere parte hartu ahal izango dute. Botoen % 25 dute guztien artean. Elkarte berriak dakarren berrikuntza

nabarmen eta garrantzitsuena da hau. Honela, Ziurtagiria lortzen dutenak ez dira soilik bezero, erabakiak hartu ahal izango baitituzte.

- Bazkide laguntzaileak: multzo honetan honako hauek egon litezke: sindikatuak, enpresa eta kooperatiba elkarteak, finantza entitateak, garapen agentziak, merkataritza ganbarak, administrazioak edota Ziurtagiriren sustapenean elkarlanean aritu nahi duen edozein entitate. Botoen % 25 dute.

Esan bezala, bazkideen Batzar Nagusiaz gain Zuzendaritza ere badago, beronek urteko egitasmoa eta batzarraren gainerako erabakiak aurrera eramateko ardura du. Zuzendaritzak gehienez hamahiru kide izango ditu eta Zuzendaritza hautatzerakoan bazkideak goian aipaturiko hiru multzoetan biltzen dira. Elkartearen zuzendariak ere parte hartzen du zuzendaritzan, baina ez du botorik. Honakoak dira Zuzendaritzaren funtzioak:

- Ziurtagiriaren Elkartearen ohiko kudeaketaz arduratzea, Batzar Nagusiak emandako irizpideen arabera eta bere agindupean.
- Elkarteak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua finkatzea.
- Batzarraren bileretako aztergai zerrenda egitea, eta beronen ohiko bilera eta bilera berezien deialdiak egitea.
- Batzarrari urteko egitasmo eta aurrekontua onarpenerako aurkeztea.
- Batzarrari aurreko urteko jardunari eta gastu eta diru-sarrerari dagozkien balantzeak onarpenerako aurkeztea.
- Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horretarako behar diren neurriak hartzea.
- Elkartearen lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria eta diruzaina izendatzea.
- Ziurtagiriaren Elkartearen langileak hautatzea edota kargugabetzea.

- Batzarrak berariaz izendatuta ez duen beste dozein eginkizun betetzea.

Une honetan Zuzendaritzakideak honakoak dira:

- a) Bazkide babesleen multzotik:
 - Kontseiluko lehendakaria.
 - Kontseiluko idazkari nagusia
 - EMUN, Elhuyar, Artez eta Ahizeren artetik, bi rotazioz.
- b) Bazkide erabiltzaileen multzotik:
 - Hernani eta Zarautzko industrialdeak.
 - Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa.
- c) Bazkide laguntzaileak:
 - AMEDNA: Nafarroako Emakume Zuzendari eta Enpresarien Elkarteak.
 - LAB.

Aurretik esan bezala, zuzendaritzako 9. kidea, elkartearen zuzendaria da.

4. LANHITZ

Honako lerroetan irakurri daitekeen moduan laburbiltzen du Eusko Jaurlaritzak *LanHitz*:

LanHitz, lana eta hitza, euskara eta eguneroko lana uztartu eta indartzeko ekimena da.

Lan-munduan euskararen erabilera eta presentzia suspertzeko Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) bultzatutako programa da, Foru Aldundiekin eta EUDELekin elkarlanean eta Eusko Jaurlaritzako Industria eta Lan Sailekin bat eginik. Badu, bestalde, enpresari-elkarteen eta sindikatu nagusien bermea.

Azken urteotan, hiritarrek zein botere publikoek euskal gizartea gero eta elebidunagoa izateko ahaleginak egiten dihardute(...).

Politika aktiboak eta enpresarien, langileen eta sindikatuen parte-hartzearekin, euskararen erabilera bermatuz, euskara errealitate bihurtu dezakegu lan-munduan eta honekin euskal gizarte integratua eta batuagoa lortu.

LanHitz egitasmoaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen artean euskara erabiltzeko ekintzen nahiz euskara-planen, laguntzen eta baliabideen berri ematea eta abian jartzera gonbidatzea da, horretarako enpresetako agente naturalen konpromisoa, inplikazioa eta adostasuna bilatu diuzte. Adostasun eta konpromiso horien lekuko dira batetik CONFEBASK, ADEGI, CEBEK eta SEArekin sinaturiko hitzarmena, eta bestetik ELA, CCOO, LAB eta UGTrekin sinaturikoa.

Lan egokia, beraz, lan-munduan ari direnen adostasuna lortu baitu HPSk. Baina, hau are gehiago biribiltzeko eta gainera errazteko lan-munduan aritu den euskalgintzarengana jo behar zuen. Esan nahi da: hizkuntza aholkularitzek (EMUN, Elhuyar, Artez, Ahize, eta abar) eta *Bai Euskarari Ziurtagiriak* urte asko daramate lan-mundua euskalduntzen lanean, beraz, badituzte esperientzia eta eskarmentua.

Esperientzia eta eskarmentu horren berri jakiteak lana aurrezteaz gain (lanak dirua ere esan nahi du, are gehiago lan-munduaz hitzegiten ari garenean) emaitza txarrak eman dituztelako baztertu diren bideak ez hartzen laguntzen du.

Enpresetan euskararen erabilera planak diseinatu, onartu eta garatzeko aholkularitza teknikoa eta metodologikoa emateko asmoa du HPSk (goiko lerroetan esan bezala lehendik egiten den lana hau ere). Horretarako sortu eta enpresen esku jarri du euskararen erabilera planak sistematizatzeko eta helburuak eta ekintzak zehazteko balio duen Erreferentziazko Marko Estandarra (EME).

Euskara planak garatzeko bi eratako laguntzak emateko asmoa du HPSk: diru-laguntzak eta lanean euskaraz jarduteko lagungarri diren tresnak. Horri, euskara planak bultzatzen dituzten udalei HPSk emango dizkien laguntzak, eta udalek eta foru aldundiak zuzenean emango dituztenak gehitu behar zaizkio.

4.1. LANHITZ: GAKO IDEIAK

1. Euskararen erabilerazko eta presentziazko emaitza sistematikoak lortzea da helburua. Langileen hizkuntza-prestakuntza eta itzulpena baliabide baino ez dira hori lortzeko. Ahal denean euskarazko sormena itzulpenaren aurretik hobestera joko da, bereziki erakundearen egoera demolinguistikoak horretarako aukera ematen duenean. Emaitza sistematiko horiek jarraian zerrendatzen diren gako ideiekin estu loturik daude, eta, horrenbestez, horiek ere ebaluazioaren parte izango dira.

2. Erakundeko alderdi guztien adostasuna, eta bereziki zuzendaritzaren edo goi-organoen ageriko konpromisoa euskara planarekiko. Planaren eraginpeko kideen parte-hartzea eta dedikazioa oinarritzko betekizuntzat joko du zuzendaritzak, eta euskara plana bere eginez, zuzeneko inplikazioa azalduko du.

3. Euskara erakundearen berezko osagai izatea lortu nahi da, neurri batean edo bestean eta planarekiko sintonian beti ere. Hortaz, erabilera eta presentziazko helburuez gain, euskara arian-arian egiturazko elementuetan integratu eta emaitzak denboran iraunarazteko estrategiak ere landuko ditu erakundeak. Horretarako lanpostu-

horniketan, dokumentu berrien sorkuntzan, erakunde irudiaren eskuliburuan, lanprestakuntzan, kudeaketa sistemetan, eta abarretan, dagozkion irizpideak txertatuko ditu, etorkizunean erabilera sistematikoa izan dadin.

4. Organizazioko egoera soziolinguistikoaren azterketa oinarri izatea, erabilera eta presentzia adierazleak ezarriz, legezko betebeharrak jasoz, eta alderdi ekonomikoa ere aintzat hartuz.

5. Ardatz eta maila lorgarrienen lehenespena egitea, planaren nondik norako nagusiak finkatzeko irizpide gisa.

6. Euskara plana abian jarritz geroztik lortutako presentzia eta erabilerazko emaitzen neurketa eta jarraipena egitea, adierazleen bitartez.

7. Euskararen zuzentasuna, egokitasuna eta ulergarritasuna bermatzea, erakundeko beste hizkuntzen erabileran bermatzen diren bezalaxe.

4.2. LANHITZ: PROZESUA

Lehenengo Zuzendaritzaren konpromisoa eskatzen da eta ondoren honako urrats hauek egingo ditu:

1. Erakundearen hizkuntza politikaren agiria landu eta indarrean jarriko du, euskara planaren bitartez landuko diren alderdiak eta abian jarriko diren ekimenak marko egokian egin daitezen. Agiri hori planaren inplementazio-aldiaren hasieran jakinarazi ohi da. Hizkuntza politikaren agiriak koherentea izan behar du planean finkatutakoarekin; horrez gain, honako alderdi hauek ere jaso behar ditu:

- Etengabeko hobekuntzarekiko konpromisoa, baita euskarari iraupidea emateko konpromiso proaktiboa ere, euskara planak landuko dituen ardatz eta mailetan.

- 6/2003 Legearen eraginpean dauden erakundeei dagokienez, araudiak ezarritako betekizunei egokitzeko konpromisoa, baita egokitzapen-plana abian jartzekoa ere, beharrik izanez gero.

Erakundeko hizkuntza politikaren agiria, halaber, berariaz eta modu aktiboan zabalduko da erakundeko kide guztien artean, proiektua zuzendaritzarena ez ezik, enpresa osoarena ere izan dadin.

2. Euskara planaren koordinatzaile bat izendatuko du, egiteko nagusi hauek izango dituen:

- Euskara planaren ardura eta ekintzen koordinazioa: planean finkatu helburuak betetzen ari direla eta etengabeko hobekuntza aplikatzen ari dela zaintzea.
- Euskara planaren baliabide zein kostuen kudeaketa eta kontrola: ekintzen bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren azterketa burutzea, planeko beste eragileen laguntzaz.
- Euskara planaren prozesuaren berri ematea zuzendaritzari, honek errebisioa egin dezan, eta, bidenabar, etengabeko hobekuntzaren ildotik lortutako helburuak iraunarazteko sistematika ezar dezan.
- Euskara plana garatzeko informazio eta bitartekoen premiak identifikatzea, eta horiei erantzuteko ekintzak gauzatzea, planeko beste eragileen laguntzaz.
- Euskara batzordea eratzen bada, berau bideratzea eta zuzentzea.
- 6/2003 Legearen eraginaren pean dauden erakundeen kasuan, legeak jasotzen dituen betekizunen betekizun-mailaren ebaluazioa kudeatzea, eta hala balegokio, egokitzapen planaren jarraipena egitea.

3. Beharrezko joz gero, euskara batzordea izendatuko du. Koordinatzaileak, zuzendaritzako ordezkariak, erakundeko kide kualifikatuak, langileen ordezkariak eta, balego, kontratatutako euskara-teknikariak, osatuko dute gutxienez batzorde hau. Batzordearen zereginak honako hauek izango dira, besteak beste:

- Koordinatzailearekin batera, euskara planaren koordinazioa eta gidaritza gauzatzea, plana modu koherentean burutu dadin.
- Euskara planaren helburuen, ekintzen eta epeen jarraipena egitea eta, behar izanez gero, ekintza zuzentzaileak proposatzea. Horien bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren azterketa burutzea, koordinatzailearekin batera.
- Euskara planaren komunikazioa egitea.
- Erakundearen hizkuntza-egoera zertan den jakiteko informazioa ustiatu eta ondorio nagusietara iristea. Ondorio horietatik abiatuta, hurrengo fase batean landu daitezkeen maila nahiz egiteko posibleen proposamena egitea zuzendaritzari, euskara planeko beste eragileekin batera.
- Euskara planaren bidez lortuko denari eusteko sistematika lantzea eta, koordinatzailearekin batera, zuzendaritzari aurkeztea.
- 6/2003 Legearen eraginaren pean dauden erakundeen kasuan, koordinatzailearekin batera, legeak jasotzen dituen eskakizunen bete-mailaren ebaluazioa kudeatzea, eta hala balegokio, egokitzapen-planaren jarraipena egitea.

4. Euskara planari onespena emango dio, eta beharrezkoa balitz, baita 6/2003 Legeari egokitzeko planari ere. Halaber, koordinatzailearen nahiz euskara batzordearen eskariz euskara plana ezartzeko behar diren giza baliabideak, ekonomikoak, edo bestelakoak eskuratuko dizkio planari. Horrez gain, euskara batzordeak edota euskara koordinatzaileak egindako proposamen eta galdereri erantzuna emango die, eta planean esku hartuko duten langileen baldintzak aztertu eta bideratuko ditu.

5. Euskara planaren inguruko komunikazioa burutuko du beste eragileekin batera, plana enpresako kide guztien proiektua dela ikusarazteko, eta haien parte-hartzea edo aldeko jarrera sustatzeko.

6. Ebaluatu egingo ditu lortu diren emaitzak, bai egitekoen betetze-mailari dagokionez, baita plana bera kudeatzeko moduari dagokionez ere.

4.3. LANHITZ: AZTERKETA ETA DIAGNOSIA

4.3.1. ERAGIN-GUNEA MUGATZEN

Zuzendaritzak —beste eragileen laguntzaz— adierazi beharko du zein den euskara planaren eragin-gunea.

Mugatze lan horretarako erakundeak EME eta bertan aipatzen diren hiru ardatzak eta mailak erabiliko ditu lagungarri gisa, horietatik abiatuta bere lan-hipotesia formulatzen hasteko.

Lantzeko aukeratzen diren ardatzak eta mailak nolako, halako izango da eragin-gunea bera ere, gehienetan. Baina prozesua alderantziz ere izan liteke, hau da, atal jakin bateko egoera demolinguistikoa ona delakoan, haren araberrako plana egitea.

Nolanahi ere den, orain arte metatutako esperientziak, zehaztapenak zehaztapen, erakusten du:

- Euskal hiztunen indize apala duten erakundeetan, bereziki presentzia areagotzera eta erabilera optimizatzen jo izan dutela, oro har. Horrek esan nahi du EMEko 1. ardatza lantzen jo ohi dela gehienbat, hau da, Erakundearen Irudia eta Komunikazioa lantzen, errotulazioa eta harrera elebidunak bereziki. Erakundearen bezeroak gehienbat Euskal Herrikoak izanez gero, hauekiko harremana ere landu ohi dela (2.ardatza). Eta, azkenik, Barne Harremanetan zabalkunde handiko zenbait agiri erraz, errepikakor eta labur ere landu ohi dela (3. ardatza)
- Euskal hiztunen indizea ohargarria izan dutenetan, berriz, aurrekoek gain barne-harremanetako lan-eginkizun orokorren,

errazen eta lorgarrienak euskaraz (ere) egitera, optimizatzeraz bideratu izan dira, lan-prestakuntzan eta baliabide informatikoetan egindako hainbat urratsekin batera. Ahozko harremanak ere —ohiko harreman-hizketak eta lan-bileretakoa— lantzen dira.

4.3.2. EGOERA SOZIOLOGIKOAREN AZTERKETA

Aldatu nahi den hori zenbateraino hobetu den neurtuko bada, abiapuntuko egoera deskribatu beharra dago. Hau egiteko komeni da prozesuaren arduradun bat izendatzea erakundeak. Bestalde, erakundeak bere esku du kanpoko enpresa laguntzaile bat kontratatzea, azterketa hau eta geroko euskara planaren ardura teknikoa ere eramateko.

Diagnostiko honek erakundeko datu orokorrez gain, honako datu hauek ere jasoko ditu:

- Euskararen erabilerazko eta presentziazko datuak, EMEko ardatzka eta mailaka (check list).
- Ardatz eta maila horiek landu gabe dauden kasuetan, horien egingarritasuna.
- Egingarri jo diren maila horiekin lotura duen kideen euskara-gaitasuna.
- Indarrean dauden hizkuntza-irizpideak.
- Begiz jotako eragin-gunea(k).

Planaren neurri-tamainak kontuan, diagnostiko zehatzagoa ere egin ahal izango da, besteak beste, langileen hizkuntza-gaitasunari buruz, edota beharrezko jotzen den beste alderdiren bati buruz datuak jasotzeko.

Begiz jotako ardatz eta maila buruzko informazioa kuantifikatu, inbentariatu edo neurtu beharko du erakundeak.

3. mailan, ahozko harremana duten item-en kasuan, horiek egiten dituen langilearen edo langileen hasierako euskara-maila zehaztuko da.

Horretarako guztirako, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aplikazio informatiko bat jarriko du erakundeen eskura

4.3.3. EUSKARA PLANARI DAGOZKION LEGEZKO BETEKIZUNAK

6/2003 Legearen eraginpeko erakundeen kasuan, legezko betekizunak zein eremutan gauzatzen diren identifikatu eta betetze-maila zein den egiaztatu beharko du, egoera soziolinguistikoaren azterketaz baliatuta.

Alderdi hauen identifikazioa eta ebaluazioa urtean behin egingo da.

4.3.4. ARDATZ ETA MAILEN LEHENESPENA LANTZEKO HELBURUEN AUKERAKETA

Egoera soziolinguistikoaren diagnostikoa egin eta gero, erakundeak bere euskara planean jasoko ditu epe jakin baterako lortuta nahi dituen alderdiak, urteka bilduta. Alde horretatik erakundeak berak finkatuko du euskara planaren iraupena zein izango den, zenbat urtetakoa alegia. Planaren bitartez zein alderdi lortu nahi dituen lehenesteko garaian, irizpide hauek erabil daitezke:

- Lorgarritasuna: errazenetik zailenera eta orokorrenetik zehatzenera
- Eragin biderkatzailea
- Legezko betekizun izatea
- Kostu ekonomikoa

Fase honetan lanerako lehenesten diren ardatzak eta mailak zuzendaritzak ere onartuak izan beharko dute.

4.4. EUSKARA PLANA

Erakundeak hainbat urteren buruan lortuta nahi dituen ardatzak, mailak eta egitekoak biltzen dituen agiria da. Urte anitzeko euskara plana, urtez urteko ekintza edo kudeaketa planetan zatikatuko da, eta hor jasoko dira gutxienez, erakundeak bideratuko dituen ekintzak. Plan hau ere baliabide informatikoz egin ahal izango da, eta aurretik diagnostiko fasean jasotako informazioaren gainean landuko da. Urte anitzeko euskara planean finkatuko du enpresak:

- Ardatz eta maila bakoitzari dagokionez, zer den lortu nahi dena, baita zer den jada edo dagoeneko lortuta duena ere.
- Eragin-gunea(k): egiteko hori bereziki non landuko den, hau da, enpresaren gune guztietan, sail oso batean, atal jakin batean/batzuetan.
- 3. mailan ageri diren euskarrien kasuan, zein hizkuntza-trataera emango zaion bakoitzari (euskaraz ere, euskara hutsez, euskara bereiz edota euskara zati batean). Ahozko harremana dakarten item-en kasuan, berriz, zein den langileak une horretan duen euskara-maila, eta zein den epe baten buruan lortu beharrekoa.
- Zein urtetan landuko den (urte batean baino gehiago lantzea gerta daiteke beharrezko).
- Lortuko dituen emaitzak sistematizatzeko landuko dituen irizpideen aurreikuspena.

Landuko diren ardatzak eta mailak nahiz legezko betekizunak oinarritzat hartuta, bilakaera-adierazleak finkatuko dira, 2. mailari dagozkion item-etan bereziki.

Euskara plan hori urtez urteko kudeaketa planen bidez garatuko da.

1. Urte anitzeko planean begiz jotakoak betetzeko bideratuko diren ekintzak, parte-hartzaileak (zirkuitua, hala balegokio), adierazleak, erantzuleak, kostu ekonomikoa eta epeak jasoko ditu, bi xede hauekin:

- Begiz jotako epe horretan erabilerazko eta presentziazko helburuak lortzea.
- Lehenetsitako maila eta helburuen gaineko kontrola ezartzeko moduak finkatzea, lortutakoa iraunaraztea posible egingo dutenak.

2. Erakundeko gainerako kideei jakinaraziko zaie komunikazio planaren bitartez.

3. Urtero ebaluatuko da.

Zuzendaritzak onartu beharko du euskara plana, eta dagozkion arduradunak, epeak eta bilakaera adierazleak; beharrezkotzat jotzen diren baliabideak esleituko ditu, behar bezala gauza dadin.

Hobetzeko planteatzen diren helburuak, begiz jotzen diren ekintzak eta espero diren emaitzak, koherentziadunak eta erakundearen neurrikoak izan beharko dute.

4.5. EUSKARA PLANAREN EBALUAZIOA

Euskara planaren koordinatzaileak, euskara batzordeak lagunduta, euskara planean jasotako ekintzen jarraipen orokorra eta urtekoa egingo du erabilerazko eta presentziazko helburuak lortzen direla ziurtatzeko.

Urteroko ebaluazio-saio honen helburua begiz jotako helburuak zenbateraino bete diren zehaztea izango da, betetze-mailaren adierazleen bidez, eta hala balegokio, lortutako hobekuntzak baloratzea, hori guztia abiapuntuko egoera eta plana ezarri ondorengoa kontuan hartuta.

Urteko jarraipen hori hizpide, dokumentu bat egingo da begiz jotako helburuak banan-banan hartu eta honela deskribatuko dituena:

- Egitekoa bete den bai/ez eta horren kuantifikazioa (adibidez, errotulu korporatiboen % 100).
- Hobekuntzazko emaitzarik izan ez bada, hori eragotzi duten arrazoien azalpena.
- Lortutako emaitzei iraupidea emateko erabiliko den sistematikaren azalpena eta sistematizazio 340 adierazlea (hizkuntza irizpidea).

Euskara planaren bitartez lortutako hobekuntza-emaitzak erakundeko gainerako kideei jakinaraziko zaizkie, gutxienez, lortutako emaitzen berri emanaz.

4.6. EUSKARA PLANAREN BERRIKUSPENA

Euskara planaren kudeaketaren ikuskapenari dagokionez:

- Zuzendaritzak egin beharko du euskara planaren iraunaldia amaitu eta gero.
- Gutxienez, honako hauek izan beharko ditu abiapuntu:
 - Egitekoen betetze-mailaren kuantifikazioaren datu eguneratuak.
 - Erakundeari aplikagarri zaizkion arauzko betekizunak izanez gero, hauen betetze mailaren ebaluazioari eta identifikazioari dagokien informazio eguneratua.
 - Bilakaera-adierazleen balio eguneratuak. Emaitzak sistematikoak ote diren aztertuko da.
 - Euskara planaren urteko jarraipenaren emaitzak jasotzen dituen dokumentuaren ondorioak.

Horiek abiapuntu, zuzendaritzak dokumentu bat landuko du, sinatua eta data-egunak jarrita, honako alderdi hauek jasoko dituen:

- Erabilera eta presentziaren emaitzak jasotzen dituen agiriaren onarpena

- Hurrengo ekitaldiko hobekuntza-helburuak ezartzeko maila berrien identifikazioa. Fase berri bati ekiten zaion erabakiko da.
- Euskara batzorde berriaren izendapena, edota orduko horren onarpena.
- Legeari egokitzeko planaren aurrerapenak, eguneraketa eta ekintzen azterketa periodikoa.
